

IL AZALPEN PROBA • <i>Gorrotoa lege</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Jaun Petri Urtiz zerraldo erori zen eta halaber berekin zekartèn ezkutari bat ere. Geziak pozoituak zeuden eta zauritutakoan edena odolean itsatsiz gero, ez zegoen bizinari eusteko esperantzarik. Joan Latzi, gezurra badirudi ere –inor baino jo errazagoa baitzen bere gorputzaren tamainagatik– lehenbiziko gezite zaparradak ez zion gorputzik jo. Zaldia zauritu zioten, ordea, eta honek, izu-laborriturik, jauzi ikaragarri bat egin zuen zaldizkoa hankaz gora botaz; Joan erraldoiaren gorputza erreko amildegian behera bilin-bolaka jauzi zen ikaragarritzko abiadan.

Baraxuengo gizaseme tantaiak, ordea, ez zuen kolpe hilkorrik hartu bere jausikera zirraragarrian eta, gainbehera jirabiratsu haren azkenean, ur osin batean amiltzeko zoria izan zuen. Areago: gezi edenduek ez zuten ikutu ere egin, bere etsaiek hala uste izan arren amilka erortzen ikusi zutenean. Aldiz zutik, aldiz arrastaka, eta tente jarri orduko berriro erorka, oinaze ikaragarriek gorputz guztia ziztatzen ziotelarik, hezurak oro hautsiak bailituan, ubelduraz beterik eta odol jarioka, inguruko baserri batera heldu ahal izan zen arnas estuka eta eio-eio eginda. Hilabete batean ohean egon zen sasi-mediku eta hezur-konpontzaile ospetsu baten ardurapean, zauriak eta hezur hautsiak sendabidean jarri zizkiòn arte. Baina giristinoki atotsia izan zèn baserria utzi ahal izateko eta zaldiz ibiltzen hasi, bi hilabete gehiago igaro ziren.

IL AZALPEN PROBA • <i>Gorrotoa lege</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

–Besterik ere bada. Kontu egin dezagun Lekutioko bidea hartu duela Arratia zehar. Horra, bada: gu prestatu eta ateratzeko ordu beteko aurrea daramakiguke gutxi gora-behera. Eta gogoan eduki Otxoa bezain zaldizko bizkorrik ez dagoela gure artean. Zernahitan da nagusi.

–Ulertzen dizut... Ezinean, hobe dut, noski, aita barkaberarena egin eta ehizea hurrengo baterako utzi.

–Alegia. Zure larruan nik horixe eginen nuke.

–Doala, bada, nora joanik baldin badu. Jaun Peru Abendañokoren gazteluan, beharbada, harrera ona eginen diote, eskale antzo ate joka doanean; baina, Lekutiarrak ezagutzen duenean zer-nolako piztia bereganatu zaion, aguro kenduko du gainetik. Ja, ja, ja! –ekin zion bat-batean algaraka–. Nola ez ote nau lehenago argitu burubide honek? Baldin neure asmoa Jaun Peruk betetzen badu, eskerrik beroenak eman beharrean geldituko natzaio. Ez dit buruhauste kaxkarra kendu gainetik abendañotarrak, alajainkoa!

IL AZALPEN PROBA • <i>Gorrotoa lege</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Gebararrak heldu zirèn biharamonean, ordea, agertu zen Mondragoeko harresi aitzinean Gomiz Onzalutx bere gudari taldearekin eta berehala inguratu zuen hiri. Eneko Muxikako indar berriekin heldu bezain laster, katapultek eta bonbardek ekin zioten lanari, jaurtigarri klase guztiak hiri barrura botaz. Hiribarruko guraiarrak, euren adiskide butroetarrak hurrean somaturik, adoretu egin ziren etsaiari gudu egiteko. Gordean zeuzkatèn iskiloak harturik, taldeka pilatzen hasi ziren eta kalezulo, teilatu eta leihoetatik etsaiari eraso zioten. Iluntzerako guraiatar gizonezko guztiak Jaun Txeru Beleiz eta Otxoa Artazubikoren aurka asaldatuak zeuden eta gauaren ilunaz baliaturik, mandatari bat igorri ahal izan zuten harresiz kanpora, butroetarrei jakinarazteko barrukoak borrokan ari zirela abendañotarren aurka. Guraiarren bidalkinak eskabide egin zion Jaun Gomiz Onzalutxi, eraso itxura bat egiteko lehenbailehen sortaldetik eta oñatiarrak beren indarrik nagusienak alde hartara biltzen zituztelarik etsaiari buru egiteko, eurak Madalena ateko gudal-zaingoa menderatuko zuten eta sarbidea emango.

IL AZALPEN PROBA • <i>Gorrotza lege</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Jaun Iakue Arexolako zurbil, margul eta mutu gelditu zen, bizia gorputzetik aienatu izan balitzaio bezala eta une batez bazirudien txorabioak jota –begiak lausoturik jarri baitzitzaizkion– bere buruaren jabetasuna galdu behar zuela. Baina, bat-batean zuzpeltu zen motelaldi honetatik eta hizketarako tankera hartu zuen. Hitzak bana-bana aletuz eta ahoskera zorrotz bat erabiliz, honela mintzatu zen Arexolako zaldun atsekabetua:

–Hori egia baldin bada –oguzi zuen sarkor eta hitz bakoitza zuhurki neurtuz–, gaurdanik zuekin nauzue, baina gezurrik badiok, hire iraina heriotzarekin ordainduko duk. Onean bihozbera nauk, baina txarrean gupidagabea. Beraz, hire buruari epaia bota diok.

–Ene hitzek ez dute iruzurrik gordetzen, Jaun Iakue Arexolako. Uste dut gaurgero adiskide zintzo eta leialak izanen garela, elkarrekin egin behar dugun bidean.

Domiku Gorriaren lantegia ez zen samurra izan, Arexolako gaztelarra ez baitzen nolanhiko arrazoiekin menderatzen zen gizona baina, jardunean murgildu ahala, ohartu zen etsai zuena bereganatzen ari zela eta haren azkeneko hitzak zorrotzak ez ezik zemaikorrak izan baziren ere, ez zuen zalantzarik Arexolatarra bete-betean konturatu zela Petri Urtizek egin zion belzkeriaz.

IL AZALPEN PROBA • <i>Gorrotza lege</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Hauxe izan zen Lekutioko batzarrearen azken tristea: mintzo elkorrak eta frutu gabeko solasak. Aurreneko jardunetan ontzat hartu zuten bake-ituna ere hauts eginda gelditu zen, ondorengo autuetan moldatu ez zirelako. Jaun Peru Abendañokok elkargo baterako ateak ireki zituzkien Aramaiotarrei, eta atean barrena igarotzen hasi zirelarik, danbateko batez itxi zituzkien, kale gorrian utzirik, ez honako eta ez harako.

Zer komeria zen Lekutioko jaunarena? Zer ikusi ote zuen atez kanpo gogoko ez zuena? Otxoaren izaera oldartsuak ikaratu ote zuen? Ustekabeko oztoporen bat izan zuen, noski, berak aurrera eramanez nahi zuten enberrari adabegi bihurri bat sortu zitzaion eta hantxe gelditu zen Abendañoko gaztelarra ez aurrera eta ez atzera, baina hurrengo kolpean enborra hausteko erabakia hartuta, adabegi madarikatua albotik utzia. Lekutioko jauna, zalantzarik gabe, Aramaiotarrei leialki eta erabat laguntzeko asmoaz damutu egin zen edo, bestela, lehendabizikotik azpilanari ekiteko asmoa harturik zuen.